

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Baliorik gabe uztea joan den urriaren 19ko ALHAOn (120 zk.) argitaratu zen 3865 zenbakiko iragarkia euskarazko bertsioan akatsak zeudelako, eta foru agindu hori zuzen argitaratzea. Hona zuzenduta: Ingurumen eta hirigintza diputatuaren 282/2018 Foru Agindua, urriaren 2koa, Villamadernetik Espejora iritsiko den hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeke proiektuaren ingurumen eraginaren txostena ematen duena

“Villamadernetik Espejora iritsiko den hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeke proiektua” ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren pean dago; izan ere, aipatutako proiektu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legeak bere I C eranskinean jasotako kasuetariko batean sartzen da, egin-eginean ere ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren peko obren edo jardueren zerrendan (2.7 azpitaldea, “lehen mailako sareko hondakin urak garraiatzeko instalazioak). Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak arautzen du prozedura.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, sustatzailearen dokumentazio hori jaso ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako eran.

Foru agindu honek, bestalde, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2018ko irailaren 25ean emandako ingurumen txosten estrategikoan ezarritako balorazioa, determinazioak eta baldintzak jasotzen ditu. Foru Agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat datoz 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarriak:

Gaur egun Villamadernek putzu septiko bat du eta bertara herriko hondakin ur guztiak biltzen dira. Putzua udalerrriaren hego-ekialdean kokaturik dago eta izenik gabeko erreka batera isurtzen ditu urak, baina Fuente Muño erreka adarra da eta hori, aldi berean, Omecillo ibaiaren adarra.

Proiektuak 315 mm-ko diametroa izango duen hodi biltzaile berria eraiki nahi du, Villamaderneko isurketak Espejora eramateko, 1.233,12 m luze izango den adar nagusi baten bidezko beharrezko trazaketa bat baliatuz; hala, Villamadernetik (hegoaldeko muturretik, gaur egungo putzu septikoaren ondotik) jaitsiko da Espejora (“Las Ermitas” urbanizazioan dagoen konexio puntura). Hodi biltzaileak funtsean nekazaritza lurra zeharkatuko du, Fuente Muño erreka ere gurutzatuz.

Villamaderneko gaur egungo putzu septikoa erabiltzeari utzi eta instalazioa nahiz erabiliko ez diren hodi zatiak kenduko dira.

Jarraian obrari lotutako elementuak azaltzen dira:

– Gainezkabidea:

Hodi biltzaile berriaren hasieran gainezkabide ganbera eraikitzea aurreikusi da; hala, euri euren konexioengatik ur beltzen emaria hazten bada, soberakina zuzenean eramanez ahalko du hurbileko erreka.

– Isurketa puntua:

Espejoko isurketa puntua ur beltzen erregistro putzu baten gainean egingo da.

– Erregistro putzuak:

Aldez aurretik fabrikatutako hormigoizko erregistro putzuak egitea aurreikusi da. Harguneak ere aldez aurreko fabrikatuaz egingo dira, haien hermetikotasuna eta 1200 mm-ko barne diametroa bermatzeko; horiek guztiak iskin guztietan kokatuko dira eta batez beste haien arteko distantzia 100 metrokoa izango da. Putzuen behin betiko kokapena lurzatiko bide eta mugekin bat etorriko da, laborantza lurrek ahalik eta ukipenik txikiena izan dezaten.

– Zangak eta PVCezko hodi biltzailea:

Zangak tarterik luzeenean 1,5 eta 4,07 metro arteko sakonera izango du eta haren barruan 315 mm-ko diametroa izango duen hodi biltzailea izango da, pikorraren gainean.

Fuente Muño errekaaren azpiko pasabidean ohea egingo da ibilguko materiala erabiliz eta bideraketa sendotuko da hormigoia botaz, harik eta ohea birjarri arte. Proiektuaren barruan kanalizazio bidegurutzeak ukitutako ingurunearen berriztapena sartzan da, ibarrak birjarriz eta landaketak eginez. Zolatutako hiri guneen azpiko pasabideetan hondeaketak ukitutako zoladurak birjarriko dira, Villamaderne eta Espejon.

1.2. Geografia eremua:

Proiektua Gaubean garatuko da, Arabako Lurralde Historikoaren mendebaleko muturrean. Villamadernetik abiatuko den eta Espejora iritsiko den hodi biltzailea egingo da, gutxi gorabehera Hego-mendebaldean kokatua 1,9ko distantziara gutxi gorabehera.



Villamaderne eta Espejoren artean proposatutako hodi biltzailearen trazaketa, hori kolorean. Gainezkabide berria arrosa kolorean.

1.3. Aztertutako aukerak:

Ingurumen agirian zenbait aukera aurkeztu dira; horien artean "0" aukera ere aztertu da, hau da, esku ez hartzea:

– "0" aukera (esku ez hartzea):

Horrek gaur egungo saneamendu sistemari eustea ekarriko luke, eta, beraz, Villamaderneko putzu septikoak funtzionamenduan jarraituko luke. Ingurumen agirian bertan zehazten den bezala, "aukera hori ez da oso zentzuzkoa ingurumenari erreparatuz gero; izan ere, gaur egun isurketengatiko ur kalitate arazoak sortzen dira Omecillo ibaian.

– Trazaketa aukerak:

Proposatutako trazaketaren definizioa zehazteko, zenbait baldintza hartu dira kontuan: sistemaren premia hidraulikoak, ukitutako ondasunen ukipena murrizteko beharra eta inguruaren orografia. Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan zehazten den bezala, "Villamaderne eta Espejoren arteko hodi biltzailearen trazaketaren definizioak uneoro bilatu du efizientzia tekniko eta ekonomikorik handiena, betiere ingurumen funtzionamendu egokia bermatuz".

– Erreka zeharkatzeko aukerak:

Hodi biltzaileak Omecillo ibaiaren adarra den Fuente Muño erreka zeharkatzen du. Bi irtenbide azaltzen dira ibaiak zeharkatu beharreko hodi biltzaileei begira:

- Zangako bidegurutzeara, erreka txikietan orokorra den irtenbidea.
- Zulatze zuzenduko edo hinkako bidegurutzeara, eskuarki ibai handietan edota natur balio nabarmenak dituzten ibaietan erabilia, ibilguan eta ibarretan zuzenean sartzea saihesten baitu.

Ingurumen agirian zehazten da Fuente Muño erreka kasuan planteatu zela zulatze zuzenduko bidegurutzeara ez zekarrela ingurumen abantaila esanguratsurik, eta, aitzitik, zangako bidegurutze batek baino zailtasun tekniko eta kostu handiagoak zekartzala. Erreka garrantzi txikia, ibarreko baso egituratu baten falta eta hura berreskuratzeko potentzialtasun handia kontuan hartuz, zangako bidegurutzearan alde egin da irtenbiderik egokien gisa.

2. Kontsulta fasearen laburpena:

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Gaubeako Udala	
Villamaderneko Administrazio Batzarra	
Espejoko Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	

Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/77 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, obra proiektuak eragin arkeologikoak ditu. Ondorioz:

“Beharrezkoa da esku hartze arkeologikoa aurrera eramatea, zundaketa arkeologikoak eginenez. Zundaketa horiek zangaren trazaketaren ehuneko 10 hartu beharko dute gutxienez, Las Ermitas inguruko gune arkeologikotik pasatzean eta lanok obrei ekin aurretik egin beharko dira betiere. Tratamendu zehatza behar duten interes arkeologikoko hondakinen agerpenak berekin ekarriko du neurri zuzentzaile berriak hartu beharra; neurriok Museoen eta Arkeologiaren Foru Zerbitzuak zehaztuko ditu. (...) Obrak egin bitartean, lur mugimenduen kontrol arkeologikoa ere egin beharko da”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak bere txostenean zehazten du proposatutako trazadura nekazaritza erabilerako lursailetatik zehar igarotzen dela gehienbat, zehatzago esateko laborantzarako lurak. Lursail horiek balio estrategiko handikotzat jotzen dira nekazaritza eta basogintzako LPSen. Horretarako, Sektore Eraginpeko Ebaluazioaren Protokoloa atxiki da, eta bertan lurzorua okupazioari buruzko, nekazaritza azpiegituretako eraginari buruzko eta nekazaritza ustiapenen bideragarritasun ekonomikoan izango diren eraginei buruzko azterketa zehatza egin da, eta horren arabera, neurri hauek hartu beharko dira:

- Obrak gauzatu bitartean luraren profil emankorra babesteko ahaleginak egingo dira, ahal den neurrian kutsa ez dadin edo beste aukera batzuekin nahas ez dadin. Hodiak jarri ondoren saiatu behar da lurra era egokian lehengoratzen, geruza emankorra beste guztien gainean gera dadin, finkak jardueraren aurreko lan baldintzetan utziz. Ingurumen agiriak balio estrategiko handiko lurren berrezarpena jasotzen du nekazaritza balio estrategiko handiko lurzoruetako neurri buruzko 7.2. atalean.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak hauxe adierazi du: “Azterketa tekniko egin ondoren ikusi da Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak ez duela inolako oztoporik izapidetzerako, ez baitie eraginik sortzen balio kulturala duten higiezin elementuei”

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Era berean, honela dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez”

- URA – Uraren Agentziak, proiektuaren laburpena eta azterketa egin ondoren, zenbait kontsiderazio ere egin ditu:

- Jabari publiko hidraulikoa (JPH) eta hari lotutako babesguneak babesteari eta uholde arriskuari dagokienez. Bestek beste nabarmentzen da “Villamaderneko isurketa Espejoko saneamendu sarera eramango duen hodi biltzaile berria abian jartzeak berekin ekarriko du inguruko ibilguetako eta, bereziki, Omecillo ibaiaren uren kalitatea hobetzea. Hori dela eta, ur masan izango duen inpaktu orokorra positibotzat jo beharra dago”

- Isurketen gairi buruzko jarduketei dagokienez.

— Obrak egiteko eta horiek izan bitartean izan litezkeen isurketak tratatzeko ur hornidurari dagokionez.

Bestalde, zenbait ondorio nabarmentzen dira; hona hemen:

“1. Obren instalazio lagungarriak beti zortasun eremutik kanpo egon beharko dira (5 metro), uholdeak gertatuz gero eraginik jasango ez duten eremuetan, eta ibaiertzean existitzen den landaredia errespetatu beharko da. Halaber, zortasun zerrenda hori egoera naturalean eta libre eduki behar da, seinaleztapen zintarekin balizatuz, eremu horretatik ibilgailurik pasa ez dadin, bertan materialik edo betelanik egin ez dadin, etxolarik edo ontzirik jar ez dadin, etab.; zinta behin betikoa edo behin-behinekoa izango da eta, beharrezkoa izanez gero, zabaldu beharko da ibaiertzeko landaretzaren presentzia egoera egokian babesteko.

2. Fuente Muño errekaen zangako bidegurutzeari dagokionez, eta Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) C.4 epigrafeak ezarritakoarekin bat etorriz, beharrezko neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak hartuko dira, interes naturaleko elementurik esanguratsuenak babesteko.

3. Proposatutako ekaitz tangari dagokionez, beharrezkoa izango da gainezkatzeko puntuari arintzeak zenbatzeko sistema bat ezartzea, betiere Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiak (JPHA) bere 3. gidalerroan ezarritakoarekin bat etorriz:

4. Uren inguruan indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz, jabari publiko hidraulikoan (JPH) nahiz zortasun eta babes eremuetan egin beharrekotako jarduketak aurrera eramateko eta hondakin urak ibilgu publikoetara isurtzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik aroko erakundeak beharrezko baimena ematea. Baimen horren testuinguruan aztertuko dira zehatz-mehatz obren ezaugarriak eta ukipenak, betiere jabari hidrauliko publikoari dagokionez; eta, hala badagokio, beharrezko preskripzioak ezarriko dira.

Azkenik, zenbait neurri proposatzen dira gomendio gisa.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Proiektuari darizkion ingurumen eragin nagusiak laborantza lurren gainekoak izango dira, bai eta Fuente Muño errekaen gainean eta modu positiboan azaleko uren kalitatearen gainean ere. Eragin horiek sustatzaileak idatzitako ingurumen agirian deskribatu eta aztertu dira, zehazki esateko 6. atalean, proiektuak ingurumenean izango dituen ondorioen ebaluazioari buruzko atalean, hain zuzen ere. Jarraian, ingurumen eraginak laburbiltzen dira eta txosten honen hurrengo ataletan ingurumen agiriak jasotako neurri babesle eta zuzentzaile osagarriak hartzearen alde egiten da.

ERAGINDAKO INGURUNENKO ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Nekazaritza lurren okupazioa eta produktibitatearen galera	Proiektuaren xedea den eremuaren zatirik handienean balio agrologiko handiko lurzorua dago. Lurren gaineko ukipen hori obra fasean izango litzateke eta zangen indusketek, obretarako pistek, obren instalazio osagarriak eta materialen metaketek eragingo lukete. Ingurumen integrazioarako neurrien ezarpena egokitzen jotzen da, ingurumen eragin horri aurre egiteko.
Hidrogeologia	Proiektuaren trazaketa Urbasa-Trebiñuko jabari hidrogeologiko sinklinalean kokatzen da, Trebiñuko lur azpiko ur sinklinalearen masaren gainean kokatuz. Omeçilloko ibaitik hurbilen dagoen eremuan hodi biltzailea Trebiñuko Kuarternarioari lotutako lurretatik zehar igarotzen da. Ez dago akuiferoen kutsadurarekiko ahultzat jotako eremurik ingurune horretan, nahiz eta proiektu osoa ahultasun ertain eta handiko eremutik igarotzen den.
Lurrazaleko hidrologia	Hodi biltzailea Omeçillo ibaiaren adarra den Fuente Muño erreka zeharkatzen du (Ebroko arrokoa) zanga bidez. Ibai eta erreketako ertzen LPSak honela jasotzen du gune horretako erreka: — Osagai hidraulikoa: 1 eta 10 km ² arteko isurketa arroa. — Osagai urbanistikoa: Landa eremuko ibarrak. — Garrantzi txikikoa denez, ez da sartzen sailkatutako arroen artean, ingurumen osagaiaren arabera. Halaber, Villamadameren ondotik igarotzen den erreka izengabeari eragingo zaio, gaur egungo putzu septikoa kenduko baita eta euri uren aringarri bat jarriko baita. Ingurumen integrazioarako neurrien ezarpena egokitzen jotzen da, ingurumen eragin horiei aurre egiteko.

ERAGINDAKO INGURUNEN ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Babestutako natura espazioak: 2000 Natura Sarea	Fuente Muño erreka eta Villamaderneko putzu septikoak urak isurtzen dituen adarra Omecillo ibaiaren adarrak dira; azken hori Babes Bereziko Zonatzat hartzen da (BBZ). Proiektua BBZetik 180 metrora kokatzen da lekurik hurbilenean, eta ez da sartzen eremuaren babes zona periferikoan. Azken batean, aurreikusita dago Fuente Muño erreka azaleko urak eta, ondorioz, Omecillo ibaiarenak onurak izateko behin proiektua gauzatu ondoren.
Ukitutako Fuente Muño erreka eremuko landaretza	Hodi biltzailea nagusiki laborantza zonetatik igarotzen da eta, Espejora iristean, gune asfaltatuetatik. Fuente Muño erreka eta erreka izengabeak ez dute kontserbazio egoera onean ibaiertzeko zuhaitzirik edo zuhaixkarik proiektuaren eremuan, laborantzak ertzearaino iristen baitira. Soil-soilik baso gereziendoen aleren bat nabarmen liteke (Prunus avium) Fuente Muño erreka ibarreko zenbait puntutan. Ingurumen integraziorako neurrien ezarpena egokituz jotzen da, ingurumen eragin horri aurre egiteko.
Igarobide ekologikoak	Hodi biltzailearen trazaketaren zati handi bat (5. putzutik 12.era arteko tartean) Arabako Foru Aldundiak proposatutako igarobide ekologikoen sarearen barruko lurretan dago (Arabako Lurralde Historikoko konektibitate ekologikoa eta pasaia aldetikoa. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005.).
Kultura ondarea	Hodi biltzailearen trazaketa Espejora iristean, Las Ermitas izeneko nekazaritza ustiapenaren presuntzio arkeologikoen eremuan sartzen da. Gainera, Villamaderneko "Fuente Vieja edo San Sebastián" iturriaren elementu txikiaren ondoan jardungo da. Ingurumen integraziorako neurrien ezarpena egokituz jotzen da, ingurumen eragin horri aurre egiteko.
Ibilbide berdeak	Hodi biltzaileak "Bidezidor Historikoa" GR-1 zeharkatzen du, bai eta "Artzaintzaren Bidea" G-282 ere, bi ibilbideek bat egiten duten puntu batean (9. putzua). Ingurumen integraziorako neurrien ezarpena egokituz jotzen da, ingurumen eragin horri aurre egiteko.

Ingurumen osagai horietan sorrarazitako eragina neurri moderatukoa dela ulertzen da, betiere ingurumen agirian zein txosten honen hurrengo atalean aurreikusitako ingurumen integrazioko neurriak hartzen badira. Nolanahi ere, nabarmendu behar da hizpide dugun proiektuak eragin positiboa izango duela Omecillo-Tumecillo ibaiaren BBZko uren kalitatean.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Villamadernetik Espejora iritsiko den hondakin uren hodi biltzailea eraikitze proiektuan jasotako jarduketan burutzapenak ez du ingurumen inpaktu garrantzitsurik eragingo; gainera, ustiapen fasean Omecillo-Tumecillo ibaiko BBZren uren kalitatean eragin onuragarria izango du, baldin eta ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduran sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian azaldutako jarduketak betetzen badira eta honako atal honetan jasotako zehaztapenak oso-osorik errespetatzen badira:

Sustatzaileak ondorio negatiboak saihesteko, murrizteko eta konpentsatzeko proiektuan jaso behar dituen neurriak jarraian aipatzen dira, sustatzaileak prestatutako ingurumen dokumentuaren 7. atalean jasotakoez gainera; hona hemen:

A) Fuente Muño erreka ertzean eta inguruko zonetan zuhaixkak eta zuhaitziak kentzea saihestuko da. Proiektatutako bidegurutzak zuhaitz kentzen ez den eremu zehatz batean proiektatutako da, betiere zuhaixken gaineko ukipenak ahalik eta gehien minimizatuz.

B) Ingurumen agirian zehazten den bezala, erregistro putzuen eta hodi biltzailearen arketen kokapen zehatza lursailen ertzetako finken eta esparruen arteko mugetan egingo da lehentasunaz, ereindako guneetan ahalik eta eragin txikiena izateko.

C) Omecillo ibaiaren eremuan erabat debekaturik dago zerbitzu guneak, makineria eremuak eta produktu kutsagarrien biltegiak ezartzea. Obrako instalazio laguntzaileak ibai ibilieren zortasun gunetik kanpo (5 metro) kokatu beharko dira, bai eta Fuente Muño erreka eta Omecillo ibaiaren inguruan uholde arriskua duen eremutik kanpo ere (10 urteko birgertatze aldia). Era berean, proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren kontsulta fasearen markoan URA – Ur Agentziak egindako alegazio txostenean zehaztutako betekizunei men egin beharko zaie; ekaitz tangari dagokionez, txosten horretan zehazten da beharrezkoa izango dela gainezkatzeko puntuari arintzeak zenbatzeko sistema bat ezartzea, betiere Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiak (JPHA) bere 3. gidalorroan ezarritakoarekin bat etorritik. Gainera, jabari publiko hidraulikoan (JPH) nahiz zortasun eta babes eremuetan egin beharrezko jarduketak aurrera eramateko eta hondakin urak ibilgu publikoetara isurtzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik arrokak erakundeak beharrezko baimena ematea.

D) Hondalanetan landare lurrezko geruzak modu selektiboan kenduko dira. Ahal dela, berehala birbanatuko dira edo, hori ezinezkoa bada, metatu egingo dira. Halakoak Fuente Muño erreka eta Omecillo ibaiaren uholde arriskurik handieneko eremutik kanpo metatu beharko dira (10 urteko birgertatze aldia), eta gehienez 3 m-ko altuerako ebakidura trapezoidaleko multzoak egin beharko dira, lurra ez trinkotzeko. Landutako nekazaritza eremuetan landare lurri dagokionez, landutako luraren lurzorua horizonte profilak modu fidagarrian lehengoratu beharko dira, lanak egin aurreko egoerari dagokionez. Ibarretan lur begetalaren helburua honakoa izango da: landaretza lehengoratzeko eta lurra birjartzeko lanak egitea, obrak ukitutako azaleretan. Behar izanez gero, lehengoratzetan gutxienez 40 cm-ko lodiera bermatzeko helburuaz, landare lurra ekarriko da kanpotik.

E) Landatutako nekazaritza eremuan hodi biltzailearen bideraketa instalatzeko sakonerak bermatu beharko du hodi horri ez diola inola eragingo laborantzarako eta luraren prestaketarako egin beharreko sakoneko landaketak.

F) Ezarritako lan guztiak amaitu ondoren (jarduketa eremuaren garbiketa fasea barne), birlandaketak egingo dira zuhaitz espezie autoktonoak erabiliz hodi biltzailearen bidegurutzeari edo ukipenaren inguruan nahiz Fuente Muño erreka eta haren adarra den erreka izengabearen inguruan; hori guztia sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian ezarritakoarekin bat etorritik egingo da. Landareberritzeko lan horiek egiteko, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

– Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guztiak behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Kalitatezko landare lur geruza bat jartzea, gutxienez 0,4 metrokoa, eta ondoren itxura ematea.

– Lur lantze eta lur harrotze lanak egitea, eta ondoren fintzea, behar bezala prestatzeko azalera, ereite eta hidroereiteak.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako zopizar espezieak erabiliko dira, gramineoen eta lekadunen nahaste bat, eragina jaso dezakeen eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetarako egokia.

– Egindako lanen paisaia integrazioarako landaketak egitea, ingurumen agirian zehaztutako eremu guztietan egin beharrekoak:



Ingurumena lehengoratzeko guneak, berde kolorean.

Zuhaitz eta zuhaixka espezieak. Ukitutako ibaiertzetan ohikoak direnak: sahatsak (*Salix atrocinerea*, *Salix alba* eta *Salix purpurea*), hurritzak (*Corylus avellana*), zuhandorrek (*Cornus sanguinea*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna*), intsusa beltzak (*Sambucus nigra*) eta gogortxuak (*Viburnum tinus*).

Zuhaixkak: 0,5 metroko garaiera izango duten aleak. Landareen arteko distantzia: 1 m. Zuloaren gutxieneko neurriak: 0,4 x 0,4 x 0,4 m.

Zuloa kalitatezko lurrekin bete ondoren, azalera 40 cm-ko radioa eta 10 cm-ko kabailoia izango dituen txorko bat egingo da eta landare bakoitza 40 litroekin ureztatuko da. Askatze moteleko ongarria erabiliko da, 100 gr/ale, baita ongarri organiko konpostatuko kilo bat ere.

Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarritzko babes bat jarriko da, "Horsol" motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m², metro bateko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko. Landare guztietan 60 cm-ko garaiera izango duen "Tubex" motako babesgarriak jarriko dira, bai eta akaziako tutore bat ere.

Landatzeko garaia: abendutik otsailera bitartean.

Landaketen osoko mantenua. Ur eskasia dagoen aldietan, landaketak ureztatu beharko dira, eta ureztaketa bakoitzean 12 l ur erabili beharko da landare bakoitzeko; lehen ureztaketan, berriz, degradazio moteleko NPK ongarri kimikoaren 100 gramo erantsiko zaio ureztatzeko urari landare bakoitzeko (3.000 kg/ha). Baita ondoztatzeak, saratzeak eta joraketak, beharrezkoak izanez gero, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kentzea, eta zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berritzea ere.

G) Erabat debekatuta dago jarduketak egitean sor litezkeen hondakinak eta landare hondarrak isurtzea. Halakoak baimendutako hondakindegira batera eraman beharko dira, eta bidezkoa bada, hondakinen kudeatzaile baimendu batek eraman beharko ditu. Lanak egiteko eremuan lubrifikatzaile edo erregaiak biltegiatu behar badira, obrak egiteko epealdian edukiontzi estankoak, iragazgaiztutako biltegiak edo beste sistema batzuk prestatu beharko dira (betiere lixibatuak biltzeko sistemak dituzten gainazal iragazgaitzen gainean), eta debekatuta dago jada erabilitako lubrifikatzaile edo erregaiak isurtzea, halakoak kudeatzaile baimendu bati entregatu behar baitzaizkio.

H) Proiektuaren sustatzaileak Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari baimena eskatu beharko dio berariaz "Bidezidor Historikoa" GR-1 eta "Artzaintzaren Bidea" GR-282 ibilbide berdeak lehengoratzeko; gauzak horrela, foru sailak ibilbideak lehengoratzeko baldintza egokiak ezarriko ditu, betiere urtarilaren 4ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

I) Proiektuaren obra fasean zehar ez zaio ukipenik eragin beharko "Las Ermitas nekazaritza ustiapena" izeneko presuntzio arkeologikoko eremuari. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak zehaztutako betekizunei men egin beharko zaie, betiere proiektu honen ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurako kontsulta fasean egindako alegazio txostenean ezarritakoari jarraituz. Zentzu honetan, beharrezkoa da esku hartze arkeologikoa aurrera eramatea, zundaketa arkeologikoak eginez. Zundaketa horiek zangaren trazaketaren ehuneko 10 hartu beharko dute gutxienez, Las Ermitas inguruko guneko arkeologikotik pasatzean eta lanok obrei ekin aurretik egin beharko dira betiere. Tratamendu zehatza behar duten interes arkeologikoko hondakinen agerpenak berekin ekarriko du neurri zuzentzaile berriak hartu beharra; neurriok Museoen eta Arkeologiaren Foru Zerbitzuak zehaztuko ditu. Obrak egin bitartean, lur mugimenduen kontrol arkeologikoa ere egin beharko da.

J) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehena. Villamadernetik Espejora iritsiko den hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeko proiektuaren ingurumen eraginaren txostena ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen Inpaktuaren Txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 2a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN